

BASAURIKO HISTORIAREN EZAUGARRI SOZIO-POLITIKOAK

Basauri erakunde politiko independente bihurtu zen XIV. mendearen hasieran. Garai horretan, Basauriko auzuneak edo auzotegiak Arrigorriagako elizatearen menpe egoteari utzi zion bai politika, bai erlijio arloan.

Basauriarrek Arrigorriagako Santa Maria Magdalena ama elizara joan behar zuten euren erlijio-eginkizunak betetzera. Baina Arrigorriagarekiko lotura 1510. urtearen inguruan ahuldu egin zen, zehazki San Migel tenplua eraiki eta parrokia kategoria lortu zuenean. Handik aurrera, erakundeak San Migel elizatea izena hartu zuen. Arrigorriagatik bereizteko erabakia alde batekoa izan zen; ez zuen Arrigorriagaren onespelik lortu, ezta Gernikako Batzar Nagusietan ordezkari izateko baimenik jaso ere. Hori dela eta, Basauriko elizatea Jaurerriak hartzen zituen gobernuko erabakietatik at gelditu zen. Azkenean, Batzarretan zegokion eserlekua 1858an bete zuen. Batzar Etxean eskubide osoz parte hartu ahal izateko, biziguneak 100 herritarretik gora izan behar zuen. Bada, Basaurik ez zuen inolako arazorik izan, garai horretan jadanik 147 zituelako (164). Nolanahi ere, Basauriko ahaldunek lan gutxi egin zuten Batzar Nagusietan, 1877an foruak abolitzearekin batera, batzarrak desagertu baitziren. Beraz, Antzinako Erregimenean, Basauriko historia ez da bere inguruetatik at hedatuko.

ARRIGORRIAGAREKIKO INDEPENDENTZIA

Basaurik, Erdi Aro osoan Arrigorriagako elizatearen menpe egon zen antzinako auzune edo auzotegia izan zenak, sekula ez zuen ez hitzik, ez botorik izan; horrela jarraitu zuen ere ama elizatik bereizi eta XVI. mendearen hasieran bere parrokia eraiki zuenean. Dirudenez, San Migel Arkanjelua parrokia eta hilerria zehazki 1510. urtekoak dira.

"El origen conocido de la parroquia de San Miguel se remonta a los primeros años del siglo XVI al desgajarse, "por iniciativa de los vecinos", de la de Santa Magdalena de Arrigorriaga. Antes de conseguir esta categoría de parroquia, existió como ermita dependiente de la mencionada iglesia, si bien no es posible saber cuándo se fundó como tal. Desde un principio se colocó bajo la advocación de San Miguel Arcángel, cuyo nombre adoptó también la Anteiglesia. Es curioso que Pascual Madoz, en su diccionario publicado en 1846, dé como denominación de ésta "Basauri o San Miguel de Artunduaga". Normalmente parece que este autor tenía buenos informes, y,

en general, sus datos son bastantes fiables. Sin embargo, no es el comentado el único dato referido a Basauri: cita una ermita, además de la de San Fausto, que sitúa correctamente en Ariz, otra dedicada a San Buenaventura, que ubica en Artunduaga. (...) Las primeras noticias documentales del funcionamiento de San Miguel como parroquia son de mediados del siglo XVI. Se trata de una escritura de 1546 que proporciona datos de gran interés para conocer el derecho de los vecinos a elegir párroco y cabildo de dos eclesiásticos, "conforme a la costumbre antigua y uso e posesión inmemorial que habian e tenian".

(...) Este derecho era contestado por los Abendaño, patronos de la parroquia. Sin embargo, en la información que sobre las iglesias del Señorío ordenó hacer Felipe 11, los testigos dicen no saber en qué derechos se basaba esa familia para dicho patronato. El asunto fue motivo de discusión permanente. En 1748, Don Joseph Ramón de I Castaños y Doña Francisca Luisa de Salazar, patronos de Begoña y Marqueses de Vargas, propietarios de la torre de Artunduaga, junto con los vecinos de Basauri, defienden sus derecho frente a los Marqueses de Mejorada, en aquellas fechas patronos llevaderos de los diezmos de la Anteiglesia, como sufragánea de la de Santa Mana Magdalena de Arrigorriaga. Estos pretendían que sus derechos incluían la presentación de: beneficiados. Los vecinos de Basauri, por su parte, argumentaba que "esta referida noble Anteiglesia y sus vecinos propietarios han tenido y tienen en todo tiempo y siempre jamás la regalía, autoridad y derecho de nombrar como hasta aquí han nombrado perpetuamente dos o mas capellanes sacerdotes adnutum y sacristanes eclesiásticos y seculares para el servicio y asistencia de la nominada iglesia Parroquial del señor San Miguel como fundadores de ella". Aunque se reconozca la Iglesia parroquial como de Patronato Real, en 1810, la perceptora era la Marquesa de Mejorada. Sobre el derecho a presentar beneficiados, en f' observancia a la costumbre que ha habido hasta ahora, se mantenía el pleito pendiente en la Real Cámara con dicha Señora por los servicios de la Anteiglesia y el Señor Marqués de Vargas, patrón de Begoña. En 1826, aun contlnuaba y para atender a los gastos que originaba, el ayuntamiento obtuvo 3.300 reales a censo del propio Marqués de Vargas".

Basauri Arrigorriagako elizatearen menpe egon zen. Baina bere eliza eraiki zuen unetik aurrera, bere abadea eta bi elizgizonez eratutako kabildoa aurkezteko eta izendatzeko eskubidea izan zuen Basaurik, ondoko gertaerak argi erakusten duen moduan: 1546ko otsailaren 9an, Martín de Gogeochea Basauriko apaiza hil zenean, eliztarrek, aho batez, Iñigo de Artunduaga haren ondorengo izendatu zuten.

Elizatearen benefizioduna izan ez ezik, han bertan sortua zen bera. Izendapen ekitaldia arazorik gabe gauzatu zen, handikiek ez baitzuten inolako oztoporik jarri. Horrela erakusten du ondoko eskriturak:

"En la Iglesia de San Miguel de Basauri, a catorce días del mes de febrero de mil e quinientos e quarenta e seis años. (Se hace saber que) el nueve del propio mes falleció Martín abad de Gogearcochea, cura espiritual de ellos, y como tenían necesidad de probér con brevedad de otro cura que les administrase los Santos Sacramentos, y como para el semejante cargo tener hallaban y sabían que Iñigo abad de Artunduaga, clérigo que presente estaba, era idoneo e suficiente, e persona de buena vida (y patrimonial de dicha Anteiglesia) y de cuya vida y costumbres tenían noticias y estaban contentos. (Además) según lo habían e tenían de uso, e de costumbre de tiempo antiguo en acá elegían y nombraban por su cura al referido Iñigo de Artunduaga en sustitución del anterior finado, y al efecto, dijeron que pedían y suplicaban al Ilustre, e muy Magnifico Señor don Juan Bernal de Luco, su obispo, e Pastor espiritual diocesano, y a los Reverendos sus Provisores e Vicarios generales en su lugar le diesen la colacion canónica para el dicho cargo de curazgo".

Apaiz berria elizan izendatzeari ekin aurretik, Martin de Gogearcochea hilobiratzean, hogeita hamaika biztanle elkartu ziren gorpuaren aurrean. Une hartan, herritarrek, beren zein ezkontide ez bertaratuen izenean, ondokoa behar zutela adierazi zioten Jacobo de Isasi errege-eskribauari: "necesidad de poner capellanes que serbiesen el cargo, y curazgo del servicio de dicha Iglesia, y dellos e de sus mujeres e familias, en lo Espiritual". Bada, Martín de Gogearcochea zendua ordeztuko, bertaratu guztiek honakoa erabaki zuten: "juntamente conformes, y de un boto y parescer (hautatzen eta izendatzen zituzten) conforme a la costumbre antigua e uso e posesion inmemorial que habian e tenían (helburu horretarako) a Iñigo de Artunduaga y con el a Francisco Abad de Ibarra, e a Martín de Aperribay, Clérigos Patrimoniales e naturales de dicha Antelglesia".

Apaiza onartu zuten batzuk ez ziren hilobiratzean egon; horien artean, ondokoak aipatu behar dira ezinbestean: Juan Ortiz de Artunduaga, Sancho Ortiz de Artunduaga (bere semea), Martín de Xauregui ("Artunduagako etxearen eta ordubearen bizilaguna"), Pedro de Goyri, Ochoa de Careaga, Martín de Arteaga, Juan Sáenz de Finaga, Juan de Gorostiaga, Ochoa de Luzán, Martín de Mendieta, Juan de Recalde, Martín de Goyri, Pedro de Goyeneche, Juan de Ojanguren de Artunduagagoitia, Juan de Arandia (*Lapatzakoa*), Iñigo de Ibarra (*Ugartekoa*), Pedro

de Asúa, Juan Ochoa de Goyeneche eta Juan de Ojanguren (*gaztea*). Prelatuaren kolazio kanonikoa lortzeko, Juan Ortiz de Artunduaga, Juan Sáenz de Finaga eta Martín de Arteaga prokuradore izendatu zituzten, "in solidum a cada uno e a qualquier de ellos". Juan Bernal de Luco jaun txit prestuari zuzendutako eskaeran, hauxe erregutu zioten: "aun cuando el agraciado lo rehusare Su Señoría Reservadísima apremie por todo remedio y rigor de derecho A que lo acepte, e use e administre porque así convenía y lo era necesario para la salud de sus animas".

Aurreko kontakizunean hiru gertaera azpimarragarri daude. Lehenik eta behin, izendapen ekitaldira bertaratu zirenek abadea soilik ez eta kabildoa bera ere ezarri zuten. Benefiziodunen kopurua handitzeko, apaizak eta bigarren benefiziodunak jasotzen zuten errenta beste benefiziodun batekin konpartitzea erabaki zuten, ondoko irizpideak jarraituz horretarako: hautatuari, Martín del Gogeochea zenduarekin batera benefiziodun izan zenak, erdia egokituko zitzaion, eta beste erdia bi laurdenetan banatuko zen Francisco de Ibarren eta Martín de Apeñabizkaren artean. Bestalde, Abendaño familia ez da inon ageri, apaiz berria aukeratu zuten garaian, Basauriko San Migel eta Arrigorriagako Santa Magdalena elizetako ugazabak zirela esaten zutenak. Urte batzuk geroago, Felipe II.ak 1574an agindutako informazioa biltzeko prozesuan parte hartu zuten lekukoak jabetza horren aurka agertu ziren. Errege fiskalak Abendañotarren etxearen aurkako auzia ipini eta gero, Basauriko San Migel eliza errege-patronatu bihurtzea erabaki zuen, abendañotarren eskuetatik kenduz.

Azkenik, ezin daiteke ahaztu dokumentuan agertzen den eta ika-mikak sortu zituen ondoko gaia: Basauriko San Migeleko biztanleek benefiziodunak aurkezteko eskubidea, hau da, apaiza izendatzeko eskubidea, "según lo habían e tenían de uso e de costumbre de tiempo antiguo en aca", edo "conforme a la costumbre antigua e uso e posesión inmemorial que habian e tenían". Aipatu dugun dokumentua 1546. urtekoa dela kontuan hartuz, eta Labayruk zein tradizio historiografikoak diotenaren arabera, Basauri Arrigorriagatik XV. mendearen bukaeran edo XVI.aren hasieran (zehazki 1510ean) bereizi bazen, hogeita hamasei urte bakarrik igaro dira bakarrik bata eta bestearen artean. Horregatik guztiagatik, badirudi basauriarrek ez zutela aukeratzeko eskubide hori betidanik izan. Aitzitik, litekeena da aipatutako aukeraketa egin ahal izateko Arrigorriagako elizatearen onespina behar izatea eta haren gainbegiratupean gauzatzea. Beraz, uste dugu dokumentu horrek apaiza bozkatzeko ohitura sekular bati erreferentzia egiten diola, baina Arrigorriagako elizatearen eskumenaren barruan kokatzen dugu hori (bereizketa gertatu arte). Beste hipotesi bat da estreinatu berria zen Basauriko San Migel elizateak berak basauriarren bozkatzeko ohitura

dokumentuetan behin eta berriz aipatu nahi izatea, bere kabuz bozkatzeko zituen grinak sendotze aldera. Edonola ere, badirudi XV. mendearen bukaeran eta XVI. mendearen hasieran, “los pueblos de Lamindano, Ipiña, Zumelzu, San Juan de Bedia, San Miguel de Basauri, Zollo, Zarátamo, Aracaldo y Bernagoitia, que todavía podían considerarse como ledanías o barriadas de otras Anteiglesias, trataban por este tiempo de constituirse en repúblicas o Anteiglesias independientes de sus matrices, (ya que) eran ya algún tanto abundosas en vecindad”. Ondorioz, behin eta berrero eskatu zioten korrejidoreari haien botoa Batzar Nagusietan onar zezaten, izan ere:

“(...) Abia pila e Sacramento e Altares e enterrorio, e tenian por si sus Fieles Regidores como otras Anteiglesias del dicho Señorío e avian venido hasta entonces muchas vezes a la dicha Junta, e si algunas vezes avian dexado de venir hera por descuydo e por bivir lexos de donde se acostumbraba a hazer la dicha Junta, e si en algun tiempo no les avian seydo admitidos sus botos dellos, los procuradores de dichas Anteiglesias avian tenido recurso al presidente y a los del Consejo, e avian proveido y mandado que los procuradores e fieles de las dichas Anteiglesias del dicho Señorío de la parcialidad oñacina eligiesen e nombrasen tres heletores para elexir el diputado e regidores e los otros oficiales que avian de ser en el dicho Señorío de la parcialidad oñacina, e lo mismo de las Anteiglesias de la parcialidad gamboina hiciesen otro tanto, segun constaba e parecia por la dicha carta executoria que ante el dicho Corregidor hicieron presentación. E pues por ella no las apartaba de la dicha Junta ni les quitaba ningún derecho ni accion para no yr a la dicha Junta, e pues tenian pila e Sacramento e altares e enterrorio, e pagaban del chante ordinario y otras decimas para el servicio de Su Alteza, e para el salario de los oficiales del dicho Señorío e para puentes e calçadas del, le pedian e requerían les admytiesen sus botos en la dicha Junta y en lo demas que fuese necesario como a procuradores de las dichas Anteiglesias gamboinas (...)”

Dena dela, eskakizun horiek guztiak egin zituzten arren, Bizkaiko Jaurerriaren Batzar Nagusiek ez zioten Basauriko San Migeli eserlekurik eman, ezta ondoko populazio-guneei ere: Haitzeko Dan Joan edo Gaztelugatxeko Doniene, Bakioko San Pelayo, Alboniga, A kanala, Akorda, Ea, Gabika, Albiz, Barinaga, Bernagoitia, Bedia, Zaratamo, Alonsotegi, Zollo, Aracaldo, Larrauri, Laukariz, Ipiña eta Lamindao. Basaurik XIX. mendeko bigarren erdian lortu zuen Batzar Nagusietan horrenbeste desiratutako eserlekua, hurrengo orrialdeetan ikusiko dugu moduan. Bestalde, Galdakaoko, Bediako San Joaneke, Zaratamoko San Lorentzoko, Basauriko San Migeleko eta Arrigorriagako Santa Magdalenako elizateak Bilboko Hiribilduaren aurka auzitan ibili

ziren. Urte horretan, Felipe II.aren agindupean, Jaurreriko agintariek Bizkaiko lurrean zein itsasoan zeuden gizon armatuak ikertzeko agindua eman zuten. Horrez gain, korrejidoreak elizate orori armak eraman zezaketen pertsonen zerrenda eratzeko agindu eta horri ekin zioten. Zerrenda horietan, arma bakoitzaren zenbakia, egoera eta kalitatea zehaztu behar zuten. Nolanahi ere, Bilbok neurri horren kontra egin zuen, haren ustez, Jaurreriko hiriburua zenak aipatutako errepubliketan bere eskumenaren barruko bizilagunak zeudelako, izan ere, "estar mandado que los dichos vecinos en la cuestión de alardes estuvieran a lo que la villa decretase a fuero de incorporados a su vecindad" 15. Bizkaiko epaile gorenak Valladolideko Kantzelaritzan aztertu zuen gaia, Jaurreriko auzietarako audientzia baitzuen bertan. Ondokoa ebatzi zuen:

"Fallo que Juan Mtinez. de Garbaran y Ochoa de Larrínaga, alcaldes hordinarios que fueron de la villa de Vilvao que desde principio conocieron en los autos y mandamientos que se dieron y pronunciaron, de (que) por parte de los dichos moradores de las dichas anteyglesias y sus consortes fue apellado, juzgaron y pronunciaron bien en quanto por ellos mandaron que los dichos moradores de las dichas anteyglesias hizie- sen alarde por ante Escribano Publico de los vezinos de las dichas anteyglesias y de las armas que cada uno tenia; y hecho, dentro del/otro dia/ le presentase ante el Escri- bano del Ayuntamiento de la dicha villa: por ende quanto a lo suso dicho debo de con- firmar y confirno los dichos autos y mandamientos de los dichos alcaldes; y declaro los dichos moradores de las dichas anteyglesias ser obligados, como abezindados de la dicha villa de Vilvao a hazer los alardes en sus anteyglesias por mandamiento del alcalde hordinario de la dicha villa de Vilvao, que es al presente y fuere de aqui adelante, y hecho el dicho alarde y reseña de hombres y armas ymbiarlo al Ayuntamiento de la dicha villa de Vilvao como y cuando les fuere mandado, y es quanto a las demás pretensiones que las dichas partes tienen la una parte contra la otra, y la otra contra la otra, les reservo su derecho a salvo para que pidan justicia como y ante quien vieren que les conviene y no ago condenacion de costas; y por esta mi sentencia definitiva así lo pronuncio y mando. / El doctor Fernan Rodríguez. Pronunciada en Valladolid, a catorce del mes de noviembre de 1586".

Deskribatu berri dugun gertaera hori Bizkaian Erdi Aro eta historia garaikide osoan lurraldetasunaren inguruan izango diren liskarren eta tirabiren abiapuntu izango da, hain zuzen, hiriaren eta gainerako Jaurerriaren arteko liskarrenak, batetik, eta hiribilduen eta lur lauaren artekoak, bestetik.

GERNIKA, AZKENEAN

Isabel II.aren erregealdian, 1858an Gernikako Batzar Nagusietan lortutako hitzari eta botoari esker, Basauri Arrigorriagatik erabat bereizi egin zen. 1833an egin zuen bereizketa aldarrikatzeko azken eskaria, baina Jaurerriaren aurrekontu ekonomiko orokorrean izandako aldaketa batek eta gerra karlistaren gertutasunak basauriarren eskaerei erantzuteko epea *sine die* atzeratzea ekarri zuten. Nolanahi ere, gerra zibila bukatutakoan, Basauriko San Migel Udaleko arduradunek berriro ere haien aldarrikapenei eta batzarrean egoteko asmoei eutsi zieten. Dagoeneko ez zegoen aitzakiarik aipatutako eskaerei jaramonik ez egiteko eta, ondorioz, Jose Antonio de Zabala erregidore fededunak testu berri bat aurkeztu zion Bizkaiko Aldundiari, Basauriri Batzarrean zegokion aulkia eskatuz:

"Ilmo Señor:

La Anteiglesia de San Miguel de Basauri a VS Ilma, con el respeto debido expone: Que habiendo presentado el día 6 de mayo de 1833 la competente solicitud para que se declarase que correspondía el nombramiento de apoderados especiales que la representasen en Juntas Generales,-acordó la Diputación que se diese cuenta de la mencionada solicitud a la Junta General que debía reunirse en breve. Dióse, en efecto, y la Junta al ver los fundamentos que le servían de base, no pudo menos que tomarla en consideración, acordando que la Comisión Permanente creada para el arreglo del presupuesto general económico, oyendo previamente a las Anteiglesias que carecían de voto en Juntas, y a la Merindad de Durango, propusiese en las próximas (Juntas) ordinarias lo que en esta razón creyese justo y conveniente. Las circunstancias extraordinarias en que se ha hallado el país desde aquel tiempo ha impedido que tenga cumplido efecto el acuerdo de aquellas Juntas. Mas afortunadamente reunido de nuevo éstas, la Anteiglesia de San Miguel de Basauri se encuentra. el caso de reproducir sus derechos que han adquirido nueva fuerza y vigor con la resolución de que se ha hecho mérito. Por no importunar a V.S. Ilma. con la nueva alegación de las razones que sirven base a ésta solicitud, va acompañada de la que se presentó en mayo de 1833, en la - están devueltas aquellas con toda la fuerza de resolución que puede apetecerse. Por todo lo expuesto, suplica a V.S. Ilma. la comunidad exponente que habiendo por reproducida la solicitud entablada en mayo de 1833, y teniendo al mismo tiempo la vista lo acordado por las últimas Juntas Generales, se Sirva, en cuanto le sea posible, activar los trabajos de la Comisión encargada de dar su dictamen sobre este importante asunto, y resolver que a esta Anteiglesia le corresponde el nombramiento. apoderados especiales que la representen en las Juntas Generales.

Dios guarde a V.S. Ilma.

San Miguel de Basauri, 10 de diciembre de 1839".

Eskaerari ahal bezain laster ekitea erabaki zuen Aldundiak. Aldi berean, Batzar Nagusiek idatzi bat luzatu zioten Basauriko San Migel elizateari, bertan eserlekua esleitzeko prozesua atzeratu izanaren arrazoiak emanez. Zehazki, ondokoak izan ziren argudioak: gerra, aurrekontu ekonomikoak, eta Batzorde Iraunkorreko zenbait kideren heriotzak.

Garai horretan, Bizkaiko herri ugarik Gernikan ordezkari izan zezaten, ahaldunak izendatzeko eskubidea aldarrikatu zuten behin eta berriz. Horien artean azpimarragarrienak Zollo eta Elantxobeko elizateak, Bediako San Joan Bautista kolazioa eta, jakina, Basauriko San Migel izan ziren. Egoera zela medio, eta helburu bera zuten eskaerak gero eta gehiago zirenez, Batzar Nagusiak ondoko dekretua argitaratu zuen, 1854ko urriaren 28an:

"La Comisión de Fueros, a la que por acuerdo del 26 del corriente pasó una exposición del Ayuntamiento de Elanchove en solicitud de que se le conceda asiento, voz y voto en la Junta General, se ha enterado de esa instancia así como del expediente que en su razón viene instruyéndose desde el año de 1833, y entiende que, ateniéndose a la importancia y considerable población de aquella Anteiglesia que pasa de doscientos vecinos contribuyendo a la Caja General como los demás pueblos del Señorío y en cantidad no pequeña, y por otra razón de política y conveniencia pública no menos poderosas, es de accederse a su solicitud y reiteradas instancias. Con este motivo y teniendo presente que en este Señorío de Vizcaya hay además otros varios pueblos que como Elanchove carecen de voz y voto en la Junta General por hallarse segregados de otros con los cuales constituían antes un sólo Ayuntamiento, y que a su vez reclaman también el mismo derecho, cree la Comisión informante que conviene establecer ciertas reglas o bases generales aplicables a todos los casos, Y en este concepto se atreve a proponer a la deliberación de V.S. Ilmas. las siguientes:

1°- Que desde luego se conceda voz y voto en la Junta General a los pueblos cuya población llegue a cien vecinos.

2°- Que los que no tengan ese vecindario puedan solicitarlo y obtenerlo cuando lleguen a ese número de vecinos.

3°- Que los barrios que en lo sucesivo se segreguen de los pueblos a que pertenecen y lleguen a constituir Ayuntamiento separado o independiente, tengan

también voz y voto en la Junta General, siempre que la segregación se efectuase con anuencia de la propia Junta general y reúna el nuevo pueblo el número prefijado de cien vecinos,

4°- Que verificando la segregación sin anuencia de la Junta General no tenga en ella ni pueda solicitar jamás voz ni voto, ni de semejante reclamación se de cuenta al País, cualquiera que sea el vecindario del pueblo segregado.

Casa de Juntas, 28 de octubre de 1854" .

Basauriko Udalak berehala erantzun zion dekretuari. Udallerriak ehun biztanletik gora zituela adierazi zuen 1856ko uztailaren 18an. Beraz, argi eta garbi gainditzen zuen Batzar Nagusiaren dekretuak ezarritako kopurua. Basauriko ordezkariak eskaera partikular bat igorri zion Aldundiari, 1858ko apirilaren 10ean. Bertan, udallerriaren biztanle-kopuru ofiziala agertzen zen. Halaber, berriro ere argi utzi zuen elizate horrek Batzar Nagusietan ordezkaritza nahi zuela:

"El Ayuntamiento de San Miguel de Basauri, acude a V.S. Ilma. y con el más pro- fundo respeto expone: Que en el expediente que tiene promovido esta Anteiglesia en solicitud de que se le conceda asiento, voz y voto en la Junta General, en la celebrada el 18 de julio de 1856 se le autorizó a V.S. Ilma. para que justificando oficialmente tener el suficiente número de vecinos que el acuerdo de Juntas Generales del día 26 de octubre de 1854 previene, se la concediera por V.S. Ilma. Si bien anteriormente se probó que la Anteiglesia excedía de los cien vecinos de , que hace referencia aquel acuerdo, se justifica hoy asimismo de una manera oficial y concluyente que el pueblo de Basauri se compone en la actualidad de 147 vecinos y 811 almas, como subsistía del nomenclator estadístico que ha visto la luz pública en el Boletín Oficial de la Provincia correspondiente a los días 10, 12 Y 14 de noviembre de 1857, Consiguientemente, suplica el Ayuntamiento a V.S. Ilma se digne concederle a jesta Anteiglesia su voz y voto en la Junta General para que desde las próximas inmediatas pueda ocupar tan distinguido asiento. Así lo expresa merced a la virtud y notoria justificación que a V.S. Ilma. le caracteriza y vivirá eternamente agradecida. Basauri, 10 de abril de 1858.

Hilabete bakarra igaro ostean, Basauri batzarretan egoteko onespena zuela jakinarazi zion Jaurreriak. Gauzak horrela, Basauriko udalbatzak horrenbeste desiratutako helburuaren ebazpena jaso zuen, 1858ko ekainaren 5ean:

"En el Salón de la Casa Consistorial de esta Anteiglesia de San Miguel de Basauri a5 de junio de 1858, bajo la presidencia del Señor Alcalde, D. José Niceto de Uría, se reunieron los señores D. Francisco de Bilbao, Teniente de Alcalde, D. José María de Uriarte, D. Tomás de Gurtubay, D. Juan Miguel de Lecue, Regidores, y D. Juan Antonio de Azcue, Síndico Procurador con quienes se compone el Ayuntamiento de esta Anteiglesia. Estando así reunidos, el señor Alcalde Presidente dio cuenta de la comunicación que había recibido de la Ilustrísima Diputación General de este M.N. y M.L. Señorío de Vizcaya, despachada por su Secretario de Gobierno con fecha de 22 de mayo pasado, y es la siguiente: Habiéndose comunicado nuevamente al caballero Síndico del Señorío para que emita su dictamen al expediente promovido por el Ayuntamiento de esa Anteiglesia de Basauri sobre que se le conceda asiento con voz y voto en las Juntas Generales del País por las causas expuestas, lo evaluó asesorado por el consultor primero del propio Señorío, y en tenor literal con el del decreto dictado en su vista por la Diputación General de este Señorío de Vizcaya, y dice que: Enterado el Síndico de este expediente dice que resultando de las diligencias practicadas en cumplimiento de lo acordado por V.S. Ilma. con fecha 13 y 15 del mes pasado, comprobada la circunstancia en que los Ayuntamientos de Vedia y Basauri apoyan su solicitud de que se les conceda asiento con voz y voto en las Juntas Generales del País, pues que aparece acreditado que la primera tiene 119 vecinos y 147 la segunda, habiéndose acordado en la (Junta) celebrada el 28 de octubre de 1854 la concesión de dicho asiento con voz y voto a los pueblos cuya población llegue a cien vecinos, y disponiéndose en la (Junta) del 18 de julio de 1856 que justificándose oficialmente por parte de las expresadas dos Anteiglesias tener respectivamente el número de vecinos designado en el referido acuerdo de 28 de octubre, es de accederse a su reclamación habiéndose autorizado para ello a V.S. Ilma. con cuantas facultades residen en la Junta Gene- ral. Es de parecer que dando V.S. Ilma. por bastante la justificación hecha por los mencionados pueblos, declare hallarse en el caso de usar de su derecho de concurrir con voz y voto a las Juntas Generales del País, y acuerde se les dirija en su consecuencia la oportuna convocatoria para las próximas que se celebren só el Árbol de Guernica, sin perjuicio de disponerse en las mismas lo conducente en punto al bando o bandos a que respectivamente hayan de agregarse. Así lo siente y firma con acuerdo del suscrito consultor en Bilbao a 21 de mayo de 1858".

350 urte baino gehiagoz geroztik aldarrikatu zutena azkenean lortu zuten. Ordutik 1875. urtera arte, udalerriak basauriarrek izendatutako bi ordezkari izan zituen Batzar Nagusietan. Baina urte horretan bertan, karlisten azken porrotaren ondorioz,

Jaurerriak foru-eskubide hori galdu zuen, eta horren ordean, Berrezarkuntzako politikariek ideia liberal eta unitario berriak sartu zituzten. Beraz, hainbestetan amestu izandako eserlekuak denbora gutxi iraun zuen.

IZEN OFIZIALA

Diktadurak iraun bitartean, Basauriko udal agintariek herriaren jatorrizko nomenklatura biziki defendatu zuten, izenak jasan zituen etengabeko aldaketen aurrean. Hain zuzen, Primo de Riveraren garaian, herritarrek Arizeko berezia deitzen zioten Urbi eta Ariz auzoen artean dagoen eremuari, zehazki Nerbioi eta Ibaizabal ibaiak elkartzen diren guneari. Zuhazti zarratu bat eta zenbait iturburu zeuden bertan, eta Etxerre eta Artunduaga auzoetara heltzeko bidea zegoen. Dena den, oso arriskutsua zen hura zeharkatzea, oso laino zerratua baitzegoen. Ondorioz, hango biztanleek Iparraldeko Trenbidetik igarotzea nahiago zuten auzo batetik bestera joan behar zutenean. Halaber, hogeiko hamarkadako dokumentu mota guztietan, Basauri ordez Bidebieta izena agertzen zaigu nagusiki. Horrek, Basauriko udalerriko gune geografiko horretan eraiki zen tren-geltokiari egiten dio erreferentzia, eta udalerrri osoa izen horrekin ezagutzeko joera hedatu zen.

Aitzitik, herritarrek aitzin-aitzineko ohiturari jarraiki, Basauriko San Migel edo Basauri deitzen zioten herriari. Hain zuzen, Antonio Fernández Mantrana alkateak horri buruz idatzi zuen herritar guztiei zuzendutako 1926ko ekainean egindako gutunean: Lehenik eta behin, dokumentu eta idatzi ofizialetan, publiko zein pribatu, Bidebieta erabiltzeari uko egin behar zitzaion udalerrri osoari erreferentzia egiten zitzaion kasuetan. Ordutik aurrera, gainera, udalak ez zituen onartuko Basauri berba biltzen ez zuen instantziarik edo dokumentu ofizialik. Azkenik, herriaren izen legitimoa defendatzeko deia luzatu zien herritarrei, euren elkarrizketetan tinko eutsiz eta erabiliz hori, elizatearen izen loriatsua gal ez zedin. Baina deialdiak erantzun ezberdinak sortarazi zituen, batez ere zenbait erakunde eta instituziotan. Banco de Vizcaya horren alde agertu zen, eta begi onez ikusi zituen udalak xedaturiko irizpideak. Aipatutako sukurtsalak udalerrian zuen finantza erakundearen izena aldatzea onartu zuen; alegia, Bidebieta izenaren ordez, Basauriko San Migel ipintzea. Aitzitik, Guardia Zibilaren komandante-buruak ezezko biribila eman zion Basauriko alkateak esandakoari. Trenbidea eta Guardia Zibilaren etxea Bidebieta deitzeko ohitura aski hedatuta zegoela adierazi zuen. Eztabaida Herrizaintza Ministerioko bulegoetaraino heldu zen. *Compañía de los Caminos del Hierro de España* elkartearen zuzendaritzak ere irmo eutsi zion bere ezezkoari: ez zuen Bidebietako tren-geltokian Basauri zioen plakarik jarriko. Neurri horrek ezusteko larriak eta merkantzia fakturatzean nahaste-borraste asko ekarriko zituela adierazi zuen. Emandako arrazoiak berresteko, azaldu zuen bere enpresak Basauriko udal-barrutian sailkapen-geltoki bat eraikitzea aurreikusitua zuela,

eta, beraz, herri honetatik igarotzean Santanderreko eta euskal trenbideekin nahastea ekar zitekeela neurri horrek. Edonola ere, Primo de Rivera agintean egon bitartean hamaika izan ziren arestian aipatutako protestak, harik eta 1930ean eztabaida behin betiko amaitu zen arte.

Harez geroztik, udalerriak Basauriko San Migel elizatea izen ofiziala izan zuen.

UDALETXE BERRIA

Arizgoitiko auzoa gero eta ospetsuagoa zen. Hain zen ezaguna, ezen 1902an Basauriko Udalak ospatutako osoko bilkuran ebazpen bat onartu zuen, Udaletxea aipatutako auzora aldatzeko.

“ La actual Casa Consistorial, edificio antiguo, de aspecto nada artístico, de construcción muy deficiente, que además sirve de alhóndiga y taberna para el servicio del arrendatario de impuesto de vinos, y es por esto de servicio público, se encuentra situada en una extremidad del pueblo, precisamente donde es menos numeroso el vecindario. Para despachar cualquier asunto concerniente al municipio o al juzgado es necesario a la mayor parte de los vecinos atravesar casi todo el pueblo y lo mismo ocurre a las autoridades que para reunirse han de acudir desde los diversos puntos extremos o céntricos al otro extremo donde está la Casa Consistorial. Por tanto, es de urgente necesidad trasladar la Casa Consistorial a un punto céntrico para todo el vecindario, como lo es el de Arizgoiti, que se encuentra equidistante de todos los barrios, próximo a la estación de Dos Caminos y a la confluencia de las dos carreteras provinciales y si bien existe en Arizgoiti un edificio municipal como se encuentra en muy mal estado es necesario utilizando el solar y los materiales construir un edificio amplio, capaz y que no desdiga de la importancia de esta Anteiglesia”.

Hala ere, bizilagun batzuek ez zuten begi onez ikusi herrian Udaletxe berri bat eraikitzekeo ideia, horrek guztiak diru-kopuru handia gastatzea baitzekarren. Bizkaiko Aldundiak berak esku hartu behar izan zuen basauriar anitzen kexak zirela-eta. Udalbatzari bidalitako txostenaren bitartez, aipatutako erakundeak Udaletxe bakarrarekin nahikoa zela adierazi zuen, areago eraikin zaharra berritzeko lanetan jadanik dirua inbertitu zela kontuan hartuz. Agindu horri esker, denbora batez bertako giroa baretu egin zen. Dena dela, 1913 osoko bilkuran berriro ere Udaletxe berri bat eraikitzekeo ideia atera zen, berriz ere aitzineko arrazoiak errepikatuz:

“(…) se trata de beneficiar a la mayoría del vecindario, atendiendo a las nuevas circunstancias de la Anteiglesia desde el establecimiento en la misma de La Basconia, la panadería de don Vicente Eulate, los centros mineros de Ollargan y San Prudencio, los ferrocarriles, etc., que han convertido al barrio de Dos Caminos en centro del término municipal por su desarrollo comercial creciente, su mayor núcleo de población y comodidades privilegiadas en relación con el resto del municipio. Que es

el centro del perímetro jurisdiccional lo demuestra con clarividencia el adjunto croquis, por el que se comprueba que desde el barrio de Zubialdea existe igual distancia que desde Elejalde de donde se infiere que al barrio de Dos Caminos circundan los restantes del municipio en distancia aproximada"

Herritar guztiei jakinarazi ondoren, ez zen inolako erreklamaziorik egon, eta 1913ko otsailaren 15ean behin betiko onartu zuten. Leopoldo Goicoechea Zulaicak planoak eta aurrekontuak (39.262 pezeta) egin zituen. 1913ko abenduaren 12an Udaletxe berria prest zegoen. 50.650 pezeta balio izan zituen eta Arizgoiti etxe-taberna zaharraren gainean eraiki zuten, bertako materialak eta atzealdean zegoen harrobia erabiliz.

Bestalde, 1892an Basaurik Etxebarriko Udalarekin negoziazioak hasi zituen Kareaga auzoan zubi bat eraikiko zela ziurtatzearen. 1980rako zonalde horretako herritarrek sutsuki eskatu zuten lan hori egin zezaten.

"Los vecinos que suscriben tienen el honor de exponer que viéndose necesitados del paso, por la necesidad de que se suelen o solían servirse del puente de Careaga, suplican encarecidamente que tenga a bien construir dicho puente como para pasar con yunta de bueyes y carro que de lo contrario dicen que no haciendo tal y como se explica sería como inservible para las necesidades de los vecinos que tendrían que pasar Con carro y bueyes; y por lo tanto esperan del Ilustre Ayuntamiento tome en consideración lo que los que suscriben exponen.

Basauri, 3 de mayo de 1890"

Udalak eskaera horiek kontuan hartu zituen eta Kareagako zubia eraiki zuten Etxebarriko elizatearekin elkartzeko. Honako baldintza hauek ezarri zituzten: Etxebarriko Udalak materiala eta lanaren balioaren %25 emango zuen; Basaurikoak, bestalde, eraikuntzaren gainontzeko aurrekontua ordainduko zuen. Biek bertatik igarotzeko eskubidea izango zuten eta zaintze-gastuak euren kontura geratuko ziren.

Basaurik zubien inguruan zituen hutsuneak 1903an azaleratu ziren berriz ere, Artunduaga auzoko herritar talde batek pasabide horren egoera Udalaren aurrean salatu zuenean:

"Los que suscriben, vecinos de esta Anteiglesia, a esa Ilustre Corporación atentamente exponen: que el puente conocido por Artunduaga y que une al barrio de este nombre con el resto del pueblo es insuficiente por las condiciones de

construcción para prestar el servicio al vecindario de Artunduaga. Por dicho puente sólo puede atravesarse a pie y si el río como acontece a menudo en la época de invierno bien crecido queda interrumpido el tránsito y los vecinos imposibilitados de comunicarse tienen que dar un rodeo de una hora para acudir a la parroquia del Ayuntamiento, o a cualquier menester urgente. En cuanto al tránsito de los carros, no es posible efectuarlo por el citado puente de madera y por el cauce del río además si es peligroso en verano en invierno es imposible. Por lo expuesto, suplican al Ayuntamiento se digne atender a la petición de los recurrentes y con la urgencia posible disponer la construcción de un puente de piedra que evite los inconvenientes que el actual en su deficiencia ofrece. J

Basauri, 8 de agosto de 1903".

1904ko udal-kontuetan Artunduaga auzoan eraikiko zen zubi berria aipatzen hasi zen, baita hura eraikitze beharko ziren diru-kopuru garrantzitsuak ere. Urte horretan 5.000 pezeta gastatu zituzten; 1905ean, 10.000; 1906an, 1.800 eta 1907an, 5.000. Harria, hormigoi hidraulikoa, morteroa, harlangaitz-horma eta egurra erabili zituzten. Ángel de Echevarría ingeniariak zuzendutako lanek 50.646,48 pezetako prezioa izan zuten guztira.

Jolas-jardueren eremuan, udaletxe berria zabaldu zen urtean bertan (1913) Baskonia Kirol Kluba sortu zen, Ricardo Ibarrondo Acha lehen presidente izan zuena. Era berean, 1913an ere, Udal Bandak lehen aldiz jo zuen. Bestalde, José Goyarrola Perek, 1909tik 1912ra Basauri zuzendu zuenak, kudeaketa garrantzitsuak egin zituen gerora herrian ur-ekarrerak egon zitezten, Primo de Riveraren garaian lortuko zena. Beste zenbait hobekuntza aipagarri egin zituen ere bai, eta udal hilerria konpondu zuen. Bere emaztearekin batera Errioxako herria den Briñasera joateko ohitura zuen, eta bainuak hartzen zituzten osasun arazoak zirela-eta. Bertan ezagutu zuten Briñaseko udaleko idazkari gaztea, Evaristo de Oñate, eta adiskidetasun handia sortu zen haien artean. Azkenean, José Goyarrolak berarekin ekarri zuen Basaurira bere bidaietako batetik itzultzean, eta gaztea Udaletxean bizitzen hasi zen.

Mende honetako Udal aktak birpatsatzean ikus dezakegunez, lehenengo urteetan epe laburrean eta bitarteko gisa ziharduten zenbait idazkari izendatu zituzten, eta 1910eko urtarrilaren 12ko bileran, Evaristo de Oñate "Laudiokoa" bitarteko idazkari izendatu zuten, baina ez zen karguaz jabetzera heldu, eta idazkariaren eginkizunak bitarteko batek egin zituen oraindik ere, Daniel Alonsok hain zuzen. 1910eko urtarrilaren 26ko bileran, alkateak Udalbatzari jakinarazi zion Evaristo de Oñateren

izendatzea deuseztatu zuela kargurako behar ziren baldintza legalak betetzen ez zituelako. Izendatua adingabea zela ikusi zuten, ikusi ere. Bilera berean beste bitarteko bat aukeratuko dute, José Manuel de Meñaca. 1910eko otsailaren 9ko bileran aurreko bitartekoa zen Daniel Alonsok kargua utzi eta bitarteko berriak hartu zuen postua, Meñaka jaunak. Bilera horretan bertan Evaristo de Oñate idazkaritzako lehen mailako ofiziala izendatzea erabaki zuten. Oraindik ere beste bitarteko bat egongo da, Pascual Sierra, 1912ko urtarrilaren 6an izendatu zutena. 1913ko urtarrilaren 4an Udaltzako Evaristo de Oñate udal idazkaria izendatu zuen, horrek kargua hartu eta idazkari gisa ziharduen 1913ko urtarrilaren 11ko bileratik bertatik eta etengabe jarraitu zuen 1958ko uztailaren 5eko osoko bilkurara arte. Egun horretan, José María Muro de Arana Ofizial Nagusiak bete zituen idazkariaren zereginak titularrak kontsulta medikoa izateagatik. Irailaren 2, 8 eta 19 eta urriaren 7ko ondorengo bileretan egoerak berdin jarraitu zuen, hau da, Oñate titularra izango zen oraindik ere, baina ez zen bileretan agertzen. 1958ko azaroaren 6ko mozio batean zera dio alkateak: “Gutxi geratzen zaio Evaristo de Oñate idazkariari kargua uzteko erretretara heltzeagatik”. Mozio horretan adierazten denez, Oñatek “aurreko urriaren 14ra arte 48 urte, 8 hilabete eta 4 egun” zeramatzan udal eginkizunak betetzen, eta bere ezaugarriak eta udalean egindako ekintza guztiak goraiatu zituen. Aktetan oinarrituz, ezin dugu Oñateren erretreta data guztiz zehaztu, izan ere, 1958ko azaroaren 21eko eta abenduaren 4ko bileretan eta 1959ko urtarrilaren 8koan, otsailaren 3koan eta martxoaren 5ekoan Oñate ageri da titular gisa, baina Arana Ofizial Nagusia da esku hartzen duena. 1959ko apirilaren 7an aktan jasota dago “Idazkari erretreataduna” den Oñate jaunak Udaltzari eskertu ziola (1958ko azaroaren 6ko bileran erabaki zena ziurrenik, beste erreferentziarik ez baitago), baina ekintza goresle orori uko egin ziola (Udaltzako agur omenaldi bat egitea proposatu zuen). Hurrengo bileretan Muro de Arana ofizial nagusiak jarraitu zuen idazkari gisa lanean, eta 1959ko ekainaren 7ra arte itxoin behar izan zuen Gascón Burillo idazkari nagusi berriak kargua hartzeko. Esan dugun guztiarekin argi geratzen da idazkari hori karguan egon zela XX. mendeko ia lehen erdialde osoan. Karguan egondako epe luze hori benetan azpimarragarria da, kontuan hartzen badugu erabateko eta oinarritzko bi erregimen aldaketa jasan behar izan zituela: Monarkiatik Bigarren Errepublikarako igarotzea eta ondoren garai frankistarako aldaketa. Azken garai horretan, gainera, lehenengo eta gogorrena izan zen epealdian (gerra eta gerraostea) bete zituen bere zereginak. Funtzionario berezi honek Primo de Riveraren diktaduraren aurreko urteetako udal gobernuetatik eta erregimen diktatorialek bertatik bizirik atera zen, eta gobernu frankistekin ere karguan jarraitu zuen. Benetan harrigarria da egoera hori garai hartan ematea, izan ere, langileak udal gobernuen menpe zeuden zuzenean, eta horrek gorabehera eta arazketa politikoak eragiten

zituen.

Bestalde, 1916an José Domingo Goyarrolak, Arizen zenbait lur eta janari-denda bat zituenak, frontoi bat eraiki zuen auzo horretan, euskal kirol tradizionalarekiko zuen zaletasunaren adierazgarri. Bertan biltzen ziren gazteak euren aisialdirik onenak pasatzeko. Gainera, inguruan bolaleku bat eraiki zuen Goyarrolak, ongi errotutako ohitura baitzen hori; izan ere, ikusi dugunez, gure herrian XVIII. mendetik jolasten zen bola-jokoan. 40ko hamarkadan, baina, aipatutako eraikuntzak desagertuko dira.



*Casa de José Domingo Goyarrola, junto a la cual construyó un frontón y una bolera
(Fotografía: Román García)*

Goyarrola Perea alkate zen garaian, Pedro Landeta Azcueta Indiarra joan zen misiolari gisa, 1912an, eta bertan geratu zen 1963an hil zen arte. Basaurin jaio zen 1887ko ekainaren 27an. Karmeldar teresarra zen aldetik, irakasle eta apaizaita izan zen Alaweko apaiztegi indiarrean. Beatifikazio prozesuan dago. Sakramentu Txit Santuaren Aureliano Aita izena hartu zuen.

1917an pertsona ospetsua izan genuen Basaurin: Aniceto Gurruchaga Dúo. Urte hartan hegazkinlari titulua lortu zuen Getafeko Eskolan. Politikoki ideologia liberalekoa; mekanikoa izateaz gain, erlojugile fina zen. 1936an hil zen, "La Peña" aterpetxean, obus baten eztanda zela-eta.

ARIZGOITIKO SAN FAUSTO ELIZA

Basauri 1891etik 1896ra zuzendu zuen Ángel Astigarraga alkateak kezka bat zeukan nagusi: Arizgoiti aldean eliza bat eraikitzea. Horrela zioen Gasteizko Apezpikuari 1891. urtearen aldean egindako eskaerak:

"Ilmo. Sr. Obispo de Vitoria: Ángel Astigarraga y Alegría, Alcalde Presidente del Ayuntamiento de Basauri con el mayor respeto y reverencia expone: que el Ayuntamiento que me honra con su presidencia a petición del vecindario del distrito de Arizgoiti ha incoado expediente para erigir de nueva construcción un templo bajo la advocación de San Fausto en dicho distrito de Arizgoiti y campa del mismo nombre con objeto de facilitar a los feligreses de dicho distrito el cumplimiento de los preceptos de nuestra sacrosanta religión, cuyo templo sirva al mismo tiempo de ayuda a la parroquia. El Ayuntamiento ha tenido en cuenta el aumento creciente de población y ha solicitado el informe del digno señor cura párroco y remite a V. Ilma. el expediente con el presupuesto, plano y condiciones formuladas para en su día llevar a cabo la ejecución del proyecto. y suplica a V. Ilma. que mediante los informes que estime oportunos se digne con- ceder la oportuna autorización a fin de que se pueda construir la obra proyectada destinándola a los fines deseados".

Tenplu berria eraikitzeko lurak Leocadio Ibarrechek doan eman zizkion Elizari. Ángel Iturralde arkitektoak obraren planoak egiteaz gain, eraikuntza-lanak zuzendu zituen.



Arizgoitiko San Fausto eliza, 1892 eta 1893 artean; 1894an lehen aldiz ireki eta 1945an eraitsi zutena.

Ezkerretik eskuinera: Félix Sanz eta Román García
(Argazkia; Constancio Martínez)

Eraikuntzaren aurrekontua 16.686 pezetakoa zen, eta Udalak ez ezik, herritarrek finantzatu zuten. Azkenean, obren kostua guztira 23.790 pezetakoa izan zen. Baseliza berriak hirurehun eta berrogeita hamar pertsona har zitzakeen. Tenplua eraikitzeko lehenbiziko lanak 1892ko abuztuaren 6an hasi ziren. Aurreneko harria 1893ko abuztuaren 21ean ipini zen, eta obrak nabarmen aurreratu ziren José Gorrayola Perea (1909-1912) alkate izan zenean. 1913. urtean obrak burutu ziren. Hurrengo urratsa San Migelgo eliza amatik bereizteko borrokatzea izango zen. 1915ean, baselizako erlijio-zerbitzuak eskaintzeaz arduratzen zen abadeak, ondoko txostena idatzi zuen eta udalari bidali zion:

“Ilmo. Ayuntamiento de San Miguel de Basauri:

El que suscribe, Domingo de Andicoechea y Uria, cura encargado de la Iglesia de San Fausto de Arizgoiti, tiene el honor de exponer a Uds. lo siguiente:

Que movido el Ilmo. Sr. Obispo por las reiteradas solicitudes del Ayuntamiento y de vecinos de esta municipalidad, se ha dignado acceder a tan razonables peticiones concediendo la facultad y gracia especialísima que los barrios de Zubialdea, Careaga, Arizbarrena, Echerre, Ariz y Arizgoiti como centro de la demarcación sean atendidas directa e inmediatamente en lo relativo al servicio espiritual por el clero de la ayuda de San Fausto para lo cual el coadjutor encargado, "con absoluta independencia de la Matriz", ejercerá todas las funciones parroquiales sobre los habitantes de dichos barrios con autorización que al efecto se delega al que suscribe. En la Iglesia de San Fausto se administrarán todos los Sacramentos el Bautismo y Matrimonio de todos los incluidos en la zona, y todos los demás servicios exceptuados únicamente los funerales (...)."

Dena dela, 1928ko ekaina arte San Migel parrokiaren menpe egongo da. Urte horretan, Cesáreo Urgoitik San Faustoko elizaren apaiz arduraduna izateari utzi eta parrokia horren ekonomo izatera igaro zen.

"Creación de nuevas parroquias y coadjutoras (...) Y, por último, se ha aprobado por Real Orden de 24 de Marzo de 1928 la creación de una parroquia (con categoría de Ascenso) y tres coadjutoras en la aneja de San Fausto, que se desmembrará con varios barrios de la matriz que es San Miguel de Basauri, según expediente remitido al Ministro de Gracia y Justicia el 21 de Diciembre de 1927.

Vitoria, 7 de Abril de 1928.

Lic. Miguel Ortiz. Can. Scio."

1945ean, hain zuzen, eliza independente bihurtzea lortu zuenetik denbora gutxira, eraitsi egin zuten. Esan dugun bezala, aipatutako eliza Arizgoitiko auzoaren espiritu-eskaerak asetzeko eraiki zen. XVIII. mendean geroztik, gero eta biztanle gehiago zituen Arizgoitik, izan ere, dagoeneko askotan aipatu dugun bezala, Durangotik Urduñara zihoan errepidea gure udalerritik igarotzen zen. Horrez gain, San Fausto gurtzen jarraitzeko Santu horren deitura jarri zioten elizari, Arizen 1673tik dokumentaturik dagoenaren arabera. Haatik, Santuen izendegian izandako akatsa zela medio, parrokia berriak Kordobako San Fausto martiriari gurtzen hasi zen. Azken hori legionario erromatarra izan zen, San Martzelo zenturioiaren semea, kristaua izateagatik gorputzeko atalak moztu ondoren, k.o. IV. mendearen hasieran bizirik erre zutena. Honela irudikatuta dago: usadiozko janzkera daraman legionario erromatar gaztea, garaiko sandaliak oinetan dituela; bere martirioa irudikatzen duen palma eskuetan dauka. Beraz, ez dauka inolako zerikusirik Arizko baselizako nekazari santuarekin. Leocadio Ibarrechek ekarri zuen irudi hori, Arizgoiti auzoko lur gehienetako jabeak. Besobakarra zen. Gurdi- eta idi-garraioetako enpresa bat izateaz gain, kontratista zen. Egun batean, idi pare sendo batez osatutako gurdi bat hartuz Kordobaraino joan zen, eta handik santu legionarioaren irudia ekarri zuen 1912. urtearen inguruan.

SAN MIGEL PARROKIA

Dokumentuen arabera. San Migel parrokia XVI. mende hasierako urteetan eraiki zen, hain zuzen, hango herritarrek Arrigorriagako Santa Maria Magdalenatik bereiztea erabaki zutenean. Parrokia kategoria lortu aurretik, aipatutako elizaren menpeko basiliza izan zen, baina ezin dugu jakin noiz eratu zen azken hori. Hasieratik San Migel Arkanjeluaren izenpeko egin zuten, eta gerora elizateak berak ere izen bera hartuko zuen. Deigarria da Pascual Madozek elizateari erreferentzia egiteko 1846an argitaratutako hiztegian jaso zuen deitura: "Basauri edo Artunduagako San Migel". Badirudi egile horren txostenak onak eta direla, oro har, hark emandako datuak nahiko fidagarriak direla. Dena den, hori ez da Basauriri buruz aipatzen duen datu bakarra: Arizko San Faustoko basilizaz gain, beste bat aipatzen du; hain zuzen, Artunduagan kokatzen duen eta San Buenaventuraren omenez eraiki zena. Madozek idatzitako dokumentuetan baino ez dugu izan azken basiliza horren berri. Herritarrek ere ez dute horri buruzko oroitzapenik. Dena dela, Gurutze Arregik aipatu egiten du, baina litekeena da Madozen oinarritu izana. Bestalde, Basauriri buruzko kapituluaren gainerakoa zuzena da:

San Migelek parrokia kategoria duela baieztatzen duten lehenbiziko dokumentuak XVI. mende erdialdekoak dira. Zehazki, 1546. urteko eskritura bat da, eta oso datu interesgarriak ematen ditu herritarrek abadea eta bi elizgizonez osatutako kabildoa erabakitzeko zuten eskubidea zertan oinarritzen zen ezagutzeko, hain zuzen, "conforme a la costumbre antigua y uso e posesion inmemorial que habian y tenian" eratzen zena. Parrokiaren ugazabak ziren abendañotarrak eskubide horren aurka agertu ziren, baina. Dena dela, Felipe II.ak Jaurerriko elizei buruz agindu zuten txostenean agertzen diren lekukoen arabera, inork ez daki zein eskubidetan oinarritu zen familia hori aipatutako patronatua bere egiteko. Gaiak etengabeko liskarrak sortarazi zituen. 1748an, Joseph Ramón de I Castaños jaunak eta Francisca Luisa de Salazar andreak, Begoñako ugazabak, Vargaseko markesak eta Artunduagako dorrearen jabeak zirenak, haien eskubideak defendatuko dituzte basauriarrekin batera Mejoradako markesen aurrean. Garai horretan, elizateko hamarrenen ugazabak ziren azken horiek, eta horretaz baliatzen ziren Arrigorriagako Santa Maria Magdalena ordaintzeko. Benefiziodunak aurkezteko eskubidea lortzea zuten xede. Bestalde, basauriarrek honakoa zioten:

"Esta referida noble Anteiglesia y sus vecinos propietarios han tenido y tienen en todo tiempo y siempre jamas la regalia, autoridad y derecho de nombrar como hasta aqui an nombrado perpetuamente dos o mas capellanes sacerdotes adnutum y sacristanes eclesiasticos y seculares para el servicio y asistencia de la nominada Yglesia Parroquial del señor San Miguel como fundadores de ella" .

1810ean eliza errege-patronatutzat hartu bazen ere, Mejoradako markesa zen garai hartako jasotzailea. Benefiziodunak aurkezteko eskubideari dagokionez, bere horretan jarraitu zuen Errege Ganbaran elizatearen zerbitzuei buruzko auziak, aipatutako andrearen eta Vargaseko markes jaunaren —Begoñako ugazabaren— artean. Ordura arteko ohiturari eutsi zioten, beraz. 1826ean oraindik ere auzia amaitu gabe zegoela, horrek eragindako gastuak ordaintzeko, Vargaseko markesak berak 3.000 erreal eman zizkion udalari.

San Migeleko apaiz izateko hautagaiek elizatean sortuak izan behar zuten. Espiritu-zuzendariak aukeratzeko garaian herritarrek neurriak hartuz eta kontu handiz jokatzen bazuten ere, zenbaitetan ez zeuden pozik aukeratutako apaizarekin. Kasu horretan, legearen aurrean haren aurkako neurriak hartzeko gai ziren; dena dela, ez zen beti horrela gertatzen.

1705. urtean, Domingo de Ojanguren lizentziatua zen San Migelgo apaiz, benefiziodun eta kapilaua. Eliztarrak ez zeuden pozik berarekin, eta behin kanpoan zegoenean, bere bizitokia kendu zioten beste bati emateko. Horren ondorioz, apaiza izugarri haserretu egin zen, eta Francisco Antonio de Salazarren zein beste bizilagun batzuen kontra(10) auzitan sartzea erabaki zuen. Urte horretan bertan, Martín de Ereñogoitiak Arrosarioko Kofradiako liburuak gorde izana leporatu zion. Ondoren datorren inkestan bildutako herritarren iritziz, elizako funtsak bidegabe erabiltzen zituen, ez zituen bere egitekoak betetzen (elizan mandoak eta lastoa sartzeko gai izan zen, betebeharrak oztopatuz), ezta bere botoak ere, emakume batekin bizi baitzen. Diruarekin zerikusia zituzten gaiei, aldiz, arreta berezia eskaintzen zien; izan ere, tratulari eta mailegu-emaille lanetan aritzen zen. Adibide honen bitartez, basauriarrek arbitrariotasunen aurrean zeukaten jarrera erakutsi nahi izan dugu. Bidegabekeriaren egilea haien parrokiaren apaiza izan arren, neurri zorrotzak hartzeko gai ziren. Zalantzarik gabe, kasu hau muturrekoa da, baina ez zen bakarra izan. 1748an, Joseph de Olartecoechea jaunak Kalagorriko Apezpiku Auzitegira jo zuen udalerrarena zen apaizetxea konpon zezatela eskatzeko. Bi benefizial horien arteko baten apaiza ,

prebisteroa eta kapilaua izateaz gain, San Migelgo elizaina eta abadea zen. Haren esanetan, apaizetxeak konponketa-lanak behar zituen, izan ere

"por su anttiguiedad se hallaba mal ttratada y con urgente nesecidad de reparos con expecialidad en su tejado, cosina, escalera y ottras cosas".

Herritarrek konpontzeko hitza eman zioten, baina ez zuten berehala egin. Ondorioz, gotzai-epaileak 24 orduko epean behar ziren neurriak hartzeko agindu zuen, bestela eskumiku nagusia ezarriko zielako herritarrei. Eliztarrak esan zion ez zela ohikoa lanegun batean biztanleak elizatean biltzea. Bitartean, apaizak gertuko bizilagunak bildu zituen, eta eskumiku nagusia ezarriko ziela mehatxatuz, herritarrek beren hitza eman zuten.

Hurrengo egunean, hain zuzen, irailaren 21ean, bizilagun guztiak bildu eta ondokoa adostu zuten:

"la dha. casa hizo fabricar estta dha. Anteyglsia sus fieles y vecinos en ttiempo que se hallaron con algunas combeniencias propios y renttas mui benttajosas y tteniendo sus curas Parrochos que asisttian a dha. Yglesia y sus feligreses con la puntualidad [...] y sir- cunsttancias nesecarias al pastto espiritual que ttanto appetecen les dieron volunttariamente y sin obligacion alguna la dha. casa" (12)

Horren truke, errentarik ordaindu gabe etxean bizi zenak, ganoraz zaindu behar zuen hori; egoera jakinetan, gainera, etxearen zati bat fededunen eta bizilagunen esku geldituko zen: *"su balcon, escalera y de mas que les a parecido en las corridas de toros y demas funciones".*

Ondorioz, une horretan zera erabaki zuten: etxea konpondutakoan, Joseph de Olarttechoechea jaunak bertan jarraitu nahi badu, errenta bat ordaindu beharko du. Izan ere, fededunen eta bizilagunen esanetan, une horretan elizatearen egoera honelakoa da: *"con ttan cortas renttas i medios que no alcanzan para subenir a sus precisos gastos y urgencias".*

Hain zuzen, argi utzi zuten aurreko apaizak etxe horretan errentarik ordaindu gabe bizi baziren, elizateak borondatez hala erabaki zuelako izan zela.

ARIZKO SAN FAUSTO BASELIZA

Arizko dorrearen aldamenean dago, eta haren zati da. Izan ere, historikoki dorrearekin lotuta egon da. Beraz, ez ditugu berriro errepikatuko baselizak izan zituen jabeak, dorreari buruz aritu garenean aipatu baititugu horiek.

1673an, garai hartan dorrearen jabea zenaren ezkontza ospatu zen bertan, hain zuzen, Francisco de Salazar y Avendaño jaunarena. Margarita de Sarabia e Yrazagorría andrearekin ezkondu zen.

Badirudi 1729an basauriarrek begikoa zutela baseliza hori. Hala erakusten du, behintzat, María Martín de Ojanguren andreak eginiko 31-7-1729ko testamentuak; baselizan zenbait meza egin ziezaiotela agindu baitzuen bertan. Arizko San Fausto nekazarien Santua da, eta Bujandan (Arabako) beneratu egiten dira bere gorpuzkiak. Hagiografiaren arabera, Alguairen jaio zen, Lleidan, VI. mendean; nekazari jainkotiarra eta eskolatua izan zen. Lur Santuetarako bidean erromes zebiltzanean, pirata musulmanen eskuetan erori eta morroi bihurtu omen zuten. Dena dela, bere ugazaba konbertitzea lortu eta bere jaioterrira itzuli zen, handik gutxira bertan hil zela. Hil aurretik agindu zuen moduan, bere gorpua lanerako erabiltzen zuen mandoaren gainean jarri zuten. Aurrera zamalkatu zuen animaliak, etengabe, harik eta aipatutako Arabako herrian behin betiko geratu zen arte. Jasokundearen Andre Mariaren omenez egina da. XVII. mendearen bigarren erdialdeko erretaula dauka, eta garai bereko santu baten irudia ageri da bertan. Micaela Portillak Lizarratik ekartzeko prozesua zehaztu egiten du, Andrés de Unceta jaunak, 1666an egindako dohaintza zela-eta egin zena. Elizan bertan aldare-erlikiontzi bat dago. Santuaren gorpuzki ustelgabeak kutxatila batean gordeta daude presbiterioan, XVIII. mende hasierako hesi baten atzean. Horren gainean, zilarrezko erlikiontzia duen aldarea dago, bertan santuaren irudia (0,59 x 0,20) eta Alavas eta Guevarasko ezkutuak ageri direla, hain zuzen, 1596an Arabako jaun goren horiek egindako opari direnak. Halaber, Kalagorriko eta Ozkabarteko apezpikuak, hots, Gonzalo Chacón y Belascok 1639an baselizari oparitu zion beste erlikiontzi bat dago.

Garai horretan ohikoa zenez, herritarrak kanonizazioaz arduratu ziren. Apezpikuak agindu zuen hori, ez aita santuak. Fernando Barquinen arabera, hari buruzko lehen biografia, hain zuzen, momifikatutako gorpuaren alboan omen zegoena, IX. edo X. mendekoa izan daiteke. Dagoeneko XVI. mendean hura omentzeko jaiak

ospatzen ziren Bujandan. Eskualde osoko fededunak joaten ziren hartara. Honela irudikatu ohi da: kateatuta, gora begira otoitz egiten eta liburu bat eskuan duela, bere jakintzaren erakusgarri; normalean, gainera, lurra lantzeko tresna batekin agertzen da. Fernando Milicua jaunak, behintzat, oraindik ikus daitekeen irudia horrela deskribatzen du; baina irudian ez da agertzen lurra lantzeko tresnarik, baliteke galdu izana. Ezin izan dugu hura ikusi, egungo elizan dagoen irudia berria baita.

Nekazarien zaindaria den aldetik, herritarrek ere harengana jotzen zuten lehorteekin arazoak zituztenean. Horrela, badugu 1752an, 1753an eta 1790ean Udalak Santuari “uren beharra dela-eta” (46) erreguteak egiteko ordaindu zituen gastuen berri. Halaber, senar-emazteen ugalkortasuna babesteko zaindaria zenez –nobleek eta erreginek santuaren gorpuzkiak estaltzen zituzten mantuak eskatzen zizkioten Bujandari (47)–, badirudi egokia dela Santu hori Arizko dorrearen jabeak gauzatutako lanaren ondorioz eraiki edo berri izan zen baseliza batean kokatzea. Dorrearekin gertatu bezala, Begoñako ugazabek Briñas familiari saldu zioten baseliza. Gerora, Mac Mahónen eskuetara pasa zen, eta horiek Elizari eman zioten. Mendeetan barrena baseliza izan ostean, izen bereko beste batek bere tokia bereganatu zuen. Azken hori Arizgoitin zegoen eta parrokia kategoria lortu zuen. (horren inguruko beste atal bat dago). Haatik, Arizko eremu horretan biztanleriak gora egin zuenez, antzinako baseliza berpiztu eta parrokia bihurtu zen. Dena dela, Santua galtzearekin batera, historian izandako garrantzia galdu zuen. Izan ere, Elurretako Andra Maria Urbi auzoko zaindariarekin batera konpartitu behar izan zuen deitura bera. Egoera berriak ez zuen, ordea, gehiegi iraun; handik gutxira, gurtza emateari utzi eta katekesi-zerbitzuak eskaini zituen denbora batez. Egun, itxita dago. Egun horrela ez bada ere, garai batean oso garrantzitsua izan zen basauriarrentzat. Horren erakusgarri da Basauriko zaindaria ez dela San Migel, elizateak bere izena daraman arren, San Fausto baizik. Lehen, Santuaren egunean meza eta erromeria egiten zuten baselizan, urriaren 13an. Antzina, gainera, Udalak *artopillek* banatzen zituen. Horrekin batera, Santua Basauriko soroetan barrena prozesioan ateratzen zuten.

ARIZKO DORREA

Kokapena

Basauriko usadiozko auzo batean dago, Erdi Aroko antzinako garai haietan, normala denez, estrategia-eremu bat besterik ez zena izango. Pentsa genezakeen moduan, aipatu dugun horixe izan zen eraikitze leku aukeratzeko arrazoia. Nerbioi

ibaiaren ezkerreko ertzean eraiki zuten, Ibaizabaleko urekin elkartzen den puntutik gertu, gero eta nagusiagoa eta hurbila zen Bilboko Hiria barrualdearekin elkartzen zuen iraganbidea menperatuz.

Kokaleku pribilegiatu horri esker, berezko babes-helburuak lortzeaz gain, bere bizilagunen ardura ekonomikoa zehaztu zuen. Denok dakigun bezala, jaun eta jabe hauetariko asko, beste ekintzen osagarri gisa eta euren diru-sarrera iturri nagusia zelarik, bertatik pasatzen zirenei den-dena lapurtzen aritzen ziren. Dorre honen inguruko datuak ez ditugun arren, ez zen harritzekoa izango, beste bandokideen antzera, euren indarra helburu horretarako ere erabili izana. Badugu, berriz, indarkeriarik gabeko ekintza ekonomikoen berri, uraren gertutasunak ahalbidetzen zituenak: burdinolak eta errota, banan-banan aztertuko ditugunak.

Era berean, San Fausto basiliza bere ondasunen artean zegoen, eta hori ere bere aldetik aztertuko dugu erlijio arkitekturaren atalean.

Historia

1353an Sancho de Ariz aipatu zen eta 1435ean Sancho Martinez de Ariz. Lotura ezkontza batean islatu zen geroago, baina ezin izan dugu horren data zehatza finkatu. Atzera eginez, ikusiko dugu Avendañoen leinua Arabatik datorrela, baina ez dakigu erabateko ziurtasunez noiz finkatu zen Bizkaian, Arratia ibarrean. Jaurerrian aipatzen den lehenengoa Martín Ruiz de Avendaño da, Urkizuko jauna izan zena, Arratian, Alfonso XI.aren erregealdian. Ospetsua izan zen ere lehenbiziko Juan de Avendaño hura, 1356an Don Tello Bizkaiko Jauna hil zuena. Villarealeko jaunak izan ziren, erregeen baleztariak eta Arratiako eta Zomozako merioak. Arizko armak, Ybarraren arabera, hauexek dira: lris-loredun gurutze iluna, atzealde gorriarekin, eta lau makal hosto berde ertzeetan. Cadenas eta Vicenteren esanetan, berriz: urrezko haritz berde bat eta sable-otso bat enborrean zutik. Avendañoakoak: Lehenengoaren arabera: urrezko banda beltza. Bigarrenak dioenez: zuhaitz berde bat, urrezkoa. Gure ustez, Ybarrarenak dira zuzenak batean zein bestean, izan ere, San Fausto basilizaren aldea osatzen zuen egurrezko ezkutuan agertzen dira bi leinuekin bat etorritz.

Arizko dorrearekin zerikusia duten familia honen kideen laburpen bat egingo dugu, eta baita euren errentena ere, posible den heinean. Kontuan hartu behar da, gainera, une zehatz batetik aurrera dorre honen jabetzak, etxaguntza guztiekin batera,

San Fausto basiliza barne, Artunduaga dorrearen jabetza ere dakarrela. Zalantzarik gabe korapilatsua da, baina interesgarria izan daitekeela uste dugu jabeen norabidea jarraitzeko. Badakigu Basauriko bi dorre nagusien jabetzak, Artunduaga eta Arizkoarenak, ezkontza bidez elkartu zirela, baina ezin dugu data zehatza finkatu. Datu interesgarri bat dugu, baina ez dakigu noraino hitz egin dezakegun Artunduaga eta Arizko dorreen arteko ezkontza-lotura bati buruz. 1468an Juan de Avedaño, izen hori izan zuen hirugarrena, Artunduagan hil zen Ibaizabalen jasotako gezi baten ondorioz. Ez dakigu dorrean bertan gertatu zen edo haren inguruetan. Beatriz de Ulloa andrearekin ezkontuta egon zen, Toledoko artzapezpikuaren iloba zena, eta harekin izan zuen bere oinordekoa, Pedro de Avedaño jauna. Prudencio de Avedaño Y Gamboa, aurrekoaren semea, Carlos V.a enperadorearen etxeko aitoren seme izan zen eta Busturia, Oribe, Arratia eta Zomozako merioa. Luisa de Beaumont y Nabarrarekin ezkondu zen, eta arma horiek geroago agertuko dira San Fusto basilizan beste ezkontza baten ondorioz. Hala ere, Galdakaon bizi zen.

Prudentzio jaun horrek seme bat izan zuen María de Mendoza andrearekin ezkondu aurretik; María de Yurre-bassokoarekin izan zuen, Urti-Castillo baten “gizon nagusi eta familia onekoa” alaba eta Antonio de Yurre-basso jaunaren iloba. Ofizio Santuaren Komisarioa izan zen azken hori. Umeari, Yurren jaioa zenari, Juan de Avendaño Gabboa Yurrebasso izena jarri zioten. Maria de Bilbao Arizmendi y Basurto andrearekin ezkondu zen, eta euren leinuen testigantza aurkitu dezakegu San Fausto basilizaren egurrezko ezkutuan. Euren lehen semea Martín de Avendaño Gamboa y Bilbao jauna izan zen, María Ana de Artunduaga y Mahamud andrearekin ezkondu zena (179). Une hartan, eta dagoeneko inolako zalantzarik gabe, ziurra da bi dorreen arteko lotura.

1632an Iñigo de Avendaño y Artunduaga kapitaina aipatzen da, Fernando Kardinal Infantearen laguntzaile izan zena. Artunduagako maiorazkoa anaiatik jaso zuen, aurretik aipatutako Martín de Avendañotik. Ordutik aurrera, edo agian baita lehenagotik ere, bi dorreen jabetza, euren ondasunekin batera, elkartuta egon zen. Basauriko Artunduaga eta Arizko etxe-dorrearen jabea izateaz gain, Artunduaga Zaharra eta Arizko burdinolak eta sutegi-hauspoak bereak ziren ere bai. Gainera, Zaratamo eta Basauriko maizterrei alokaturiko abereak ere bazituen. 1631n diputatu ganboatarra izan zen.

Sukarraren eraginez Flandesen hil zenean, maiorazgoa arrebak jaso zuen, María Magdalena de Avendaño, Francisco de Salazarrekin ezkondua, Salazar de

Largachako dorrekoa, Gordexolan. Francisco de Salazar y Avendaño semea izan zuten, Arizko dorrearen eta Bilbo Zaharraren jauna, besteak beste. Santiagoko zalduna izendatu zuten 1649an.

1673an, ezkontza berri batek dorreen jabeen leinu garrantzitsua gorai patuko zuen: Francisco de Salazar Avendaño eta Margarita Sarabia e yrazagorriaren artekoa. Senargaiak, Basauriko bi dorreez gain, beste zenbait jarri zituen ondasun gisa: Sopuerta eta Garaiko batzuk, Zuazokoa Galdakaon, Etxebarrikoa, Basakoetxekoa, Salazarrekoa Barrencallen, Bolivarrena Sodupen eta Atalaya Bilbon. Ezkontza San Fausto basilizan egin zen; hori dela-eta, bertako erretaulan zegoen egurrezko ezkutu batean, emaztegaiaren armen artean Nafarroako kateak agertzen dira. 1674an senargaiari buruz zera esaten zen:

"Francisco de Salazar Abendaño cavallero de la horden de Santiago, Gentil hombre de la boca de su Magestad, regidor perpetuo de la ciudad de Burgos, señor de las casas y solares de Artunduaga y Hariz, vecino de esta dha villa [Bilbao], arrendador de ferrerías y molinos y casa y heredades..."

1704an: "Dorrea Francisco Antonio de Salazar jaunarena da. Maizterra Fermín (?) de Bernaola jauna (184). Alaba, Magdalena Josefa de Salazar Saravia andrea, Francisco Fernando DE Barrenechea y Erquiñigorekin ezkondua. Oinordetza euren semeak hartu zuen, Fernando Cayetano de Barrenechea, Salazar, Erquiñigo y Saravia jauna. María Josefa Castaños Ocariz andrearekin ezkondu zen, Begoñako ugazabaren alaba zenarekin. 1737an Arizko oinordekoa, Francisca Luisa de Salazar y Henríquez de La Carra, Sarabia, Murgoitio,

Pastier, Avendaño, Yrazagorria y Ariz andrea, Begoñako ugazaba eta Vargaseko markesa zenarekin ezkondu zen, José Ramón de Castaños y Ocariz jaunarekin. Ordutik aurrera Begoñako ugazabak, Vargaseko markesak, agertuko dira jabe gisa. 1745ean zera ikusten dugu:

"La Casa Torre de Ariz, su ferrería y Molino de dho. Castaños, su inquilino Francisco de Perea" (187). "Otra (casa) llamada de Arizgoitia de dho. Castaños (también en Ariz), su inquilino Bautista de Eguiguren".

1795ean:

"Palacio de Ariz. Jose de Galbarriartu inquilino. 264 reales. Dho. Palacio, inquilino Antonio de Alday, 495 reales.

Ezin dugu data zehatza finkatu, baina gutxienez urte honetatik aurrera, dorreak bi maizter izango ditu, hau da, bi etxebizitzatan banatuko da.

Ferreria de Ariz, maneja su dueño, 3.300 reales.

Casa pequeña junto dha. Ferreria, Domingo de Careaga, 440 reales.

Molino de Ariz, inquilino Francisco de Yrarragorri, 925 reales.

Casa sobre la Bega de Ariz, Ignacio de Astiarraga inquilino, 654 reales.

En dha. casa (?) de Abrisqueta (?) 610 reales.

Caseria de Arizgoiti, Benito de Bilbao, 583 reales.

Casa de Arizbarrena, Manuel de Goytia, inquilino, 440 reales".

1976. urtean hauxe ikusten dugu:

"Otra el Palacio de Ariz perteneciente al mismo Patrón de Begoña con dos habitaciones. Otra nueva perteneciente al mismo Patron de Begoña. Otra nueva dividida con medio anil y escaleras separadas y dos habitaciones pertenecientes al Patrón de Begoña, su administrador Don. Vicente de Mendiola (190). Otra perteneciente al Patrón de Begoña (En Arizgoiti) Otra perteneciente al Patrón de Begoña (En Arizbarrena). Una ferrería en Ariz perteneciente al Patrón de Begoña".

Zertxobait geroago, 1798.urtean:

"Otra Casa nueva en Aris con parte de heredades nuevas también de dho. Patrón .Otra Casa nueva arrimada a la ermita de San Fausto también de dho. Patrón".

Urte berean, 1798an, Arizko jabea, José María de Castaños Salazar Vargaseko markesa jauna, bere ilobarekin ezkondu zen, Manuela María de Barrenechea y Lazapa andrea. Arrazoi ezberdinak zirela-eta oinordekoaren bidea desagertu zenean, maiorazkoa José Ramón de Castaños jaunaren arreba batek hartu zuen, María Josefa de Castaños, senide batekin ezkondu zena, hain zuzen, Fernando Cayetano de Barrenechea y Salazar Herguiñigo y Sarabia jaunarekin.

1838an 367 errealeko deskontua egin zen ordura arte Vargaseko markesak egiten zuen ekarpenean, Gerra Karlista zela-eta bere etxeetako batean ezbeharrak

gertatu baitziren. Francisco de Barrenechea y Oñate jauna, Begoñako hogeita seigarren ugazaba, aldi berean San Kristobaleko markesa zena, aitak amaldeko amonetik titulua jaso izateagatik, ez zuen ondorengorik izan. Jabetzak arrebak hartu zituen, María Felipa de Barrenechea andreak, 1858an Felipe de la Mata y Fernández de Arnedorekin ezkondu zenak(194).

Begoñako ugazabek jabetza hauek Briñas familiari saldu zizkieten, ondoren Mac-Mahonek hartuko zituztenak (195).

1863an hiru maizter izango ditu: Francisco Bilbao: 770 erreal. Pedro Alday: 770 erreal. Vicente Ascue: 680 erreal. Errentak Juan María eta Gabriel María de Ibarra eta Cosme de Zubiria jaunarenak (195).

1867an 2.220 erreal lortuko ditu errentan eta hiru maizter izango ditu. Mendiko estatuak: 50.898. Mendiko kargak: 7 urtean behin, 1.500.

Vargaseko markesenak izan ondoren, Luis Briñasen ondorengoan eskuetara heldu zen eta, geroago, Eulate familiak hartu zuen. Azken horiek, irin-fabrika bihurtu zituzten erantsitako eraikinak.

Zenbait gorabehera zirela-eta gaizki tratatu izan ondoren, Udalak eskuratu zuen 50eko hamarkadan. Baina horrek ez zion degradazio-prozesuari amaierarik eman, izan ere, hutsik geratu zen eta eguraldi txarraren eraginak pairatu behar izan zituen, batez ere, 1983ko eurite gogorrek sortarazitakoak. Egia da hurrengo urtean premiazko zaharberitze-lanak egin zirela, baina ez ziren behar bezain sendoak izan eraikuntzaren egoera hondatua konpontzeko. Azkenean, 1990ean erabat berreskuratu egin zen.

ITURRIAK

Basauriko elizateari buruzko azterketa historikoa egiteko garaian, oinarrizko zailtasun batekin egin dugu topo: 1510. urtera arte ez dago horri buruzko inolako informaziorik, eta harez geroztik XVIII. mendera arte, eskura dauden erreferentzia zehatzak oso urriak izango dira. Ordura arteko estatistika urrietan, Basauri Arrigorriagaren barruan dagoen udalerrri gisa agertuko da. Elizate horretatik bereizi zen moduagatik gertatu zen hori. Izan ere, ez zuen erabateko ofizialtasunik jaso 1858. urtera arte, hain zuzen, Gernikako Batzar Nagusietan hitza eta botoa lortu zuenean.

Ondokoak dira aurrena erabili ditugun zuzeneko informazio-iturri ofizialak: alde batetik, 1704, 1745, 1767, 1798 urteetako fogerazioak eta 1795eko zentsu bat, Gernikako Batzar Etxeko Artxibategian daudenak.

Bestetik, garai horiek baino lehenagokoak diren Parrokia Liburuak ditugu: "Hildakoak", 1610etik; "Bataioak", 1672tik; "Ezkontzak" eta "Jaiotzak", 1673tik. Horiek guztiak Bizkaiko Elizaren Histori Arkibuan (B.E.H.A) daude. Arkibuak, gainera, bestelako datu interesgarriak eskaintzen ditu; besteak beste, 1649an Santiagoko zaldun izendatu zuten Francisco de Salazar de Avendaño jaunarekin zerikusia dutenak, baita Arizko etxeko maiorazkoan bere ondorengoa izan zenarekin lotura dutenak ere.

Basauriko Udal Artxiboan (B.U.A.), ordea, udal kontuei buruzko 1747. urteko liburu bat aurkitu dugu. Haatik, artxiboan 1945ean egin zen inbentario batean, ondoko ageri da: "Apeo y Cestreo del monte comunal Artibe ó Pagasarri"; herri-basoaren lur-neurketa bati buruzkoa da, 1706an egina. Nolanahi ere, Basauriko Udal Artxiboan dauden dokumentu gehienak XIX. eta XX. mendekoak dira.

Bizkaiko Probintziako Artxibo Historikoan (B.P.A.H.), aldiz, XVII. mende erdialdeko zenbait datu dauzkagu; esate baterako, kontzejuko mendiei buruzko alokairua, 1648an; edo Kareagako errotena, 1674an. Interesgarria da oso Antonio de la Llana eskribauak idatzitako dokumentua, 1673an Francisco Antonio de Salazar y Avendaño Arizko San Fausto basilizan ezkondu zela aipatzen baitu; Hostediren lana ere aipatzekoa da, 1706ko paper-sorta batean baseliza eraikitzeko baldintzak bildu baitzituen. XVIII. mende hasierako dokumentuak ugariagoak dira; besteak beste: abeltzaintzari buruzko txostenak eta partikularrek burdinolei ikatza emateko betebeharreri buruzko dokumentuak, 1713tik aurrera; hamartarren alokairuaren balioa, 1725ean; burdina lantzeko kontratuak, 1729an; garai horretako erroldak, etab. Horrekin batera, San Migel elizari buruzko obren eta berrikuntzen inguruko informazioa egongo da, 1726. urtetik aitzina. Artxibo horretan gordeta dauden datuak ugaritu egingo dira mende horren erdialdetik aurrera.

Kalagorriko Eliz Arkibuaren (Archivo Eclesiástico de Calahorra, A.H.C.) atal zibilean 1705ean Domingo de Ojanguren apaiz benefiziodunaren eta Basauriko San Migeleko herritarren artean izandako auziaren berri ematen duten bi dokumentu

daude. Apaiz horrek berak beste partikular batekin izandako arazoak ere bilduta daude Kalagorriko Eliz Arkibuan.

Artxibo Historiko Nazionaleko (A.H.N.) Estatuatalean, San Migel elizari buruzko deskribapen txikia jasotzen duen 1714ko ikerketa bati buruzko dokumentua dago.

Labayruren esanetan, Bilboko Udal Artxiboan Basauriren inguruko agiriak daude. Ezin izan dugu hura kontsultatu, baina.

Informazio-iturri idatzien artean, besteak beste, aipatu behar dira: Lope García de Salazar, "Juan Fernández de Artunduaga, merkatari xehea" gizonak sortutako Artunduaga leinuari buruzko berriren bat ematen duena, eta Fernando Barquín Milicua. Kasu horretan, ez ditu iturriak aipatzen, baina basurtotarrengandik jasotakoa aditzera ematen du.

Juan Ramón de Iturriza y Zabalak idatzitako *Historia General de Vizcaya* liburuak biltzen du Basaurik 1510ean Arrigorriagako Santa María Magdalenatik bereizteko hartu zuen erabakia.

Estanislao Jaime de Labayruren *Historia General del Señorío de Vizcaya* liburuan behin baino gehiagotan agertzen da Basauriko herria edo bertako zenbait bizilagun. Adibidez, Lázaro de Hormaeche jaunak egindako margoan oinarrituz, 1375ean Basaurin kokatutako baina Bilboko jurisdikzioaren barruan zeuden zenbait etxeren jabeak aipatu zituen, baita Arrigorriagako, Zaratamoko, Galdakaoko eta Bediako beste hainbatenak ere. Horrekin batera, 1547an bizi ziren Basauriko bizilagun batzuk aipatzen ditu, eta ezaugarri bat nabarmenduko du: herritar guztiek, bai jabeek, bai maizterrek, herriko karguetarako izendatzeko eta izendatuak izateko eskubidea zeukatela. Era berean, haren esanetan, Bilboko Udal Artxiboan ondoko izenburua zeukan eskuizkribua topatu zuen: 1546. *El Derecho que tiene San Miguel de Basauri de nombrar Capellanes Beneficiados*. Dena dela, ez dugu hori aurkitu eta, gainera, ez da 1945eko inbentarioan agertzen.

Fidel de Sagarminagak, aldiz, Martín de Abendaño y Artunduaga jaunak 1598an Jaurerriaren eskutik jaso zuen agindua aipatzen du, hain zuzen, Basaurin eta Zaratamon izurritearen kontrako neurriak hartzeko egin zion mandatua.

Bukatzeko, XVIII. mendera arte ditugun datuak urriak eta osatu gabeak direla esan dezakegu. Mende horretako erdialdetik aitzina, ordea, ugaritu egingo dira.

Basauriko historiari buruzko liburuak

- BASAURI, 1550-1750 Componentes sociales, mentalidad y vida cotidiana de una anteiglesia - Olga Arenillas San José, Santiago Pérez Hernández, Fernando Poza Tomás, Miriam Villalba Fernández
- HISTORIA DE LA ANTEIGLESIA DE SAN MIGUEL DE BASAURI - José Manuel Azcona Pastor, Miren Bilbao Notario, Txomin Etxebarria Mirones
 - BASAURI MI PUEBLO - Román García
 - BASAURI, KALEZ KALE
 - BASAURIKO BIZIPEN ETA ISTORIOAK - Lino Ayesta